



## Auzolana oinarri, Porrontxo jai giroa zabalduko dute

Porrontxo jai jendetsuek hankaz gora jarriko dute Egia. Hilaren 9tik 14ra bitarte, gustu guztientzako jarduerak eskainiko dituzte eta auzoan zehar barreiatuko dute jai giroa. Betiko jarduera arrakastatsuez gain, auzoko hainbat eragileren berritasunak nagusituko dira aurtan.

📷 Olatz Balda Sagarzazu

Ondo pasa nahi duen edonork bere gustuko zerbait topatuko du Porrontxo jaietan, denetik egongo baita». Adierazpen irmo horrekin iragarri dituzte June Alduntzin (Egia, 2001) eta Naroa Moreno (Egia, 2003) jai batzordeko kideek iristear dituzten festak. Hamaika jardueraz osaturiko zazpi eguneko egitarauarekin datoz jaiok, eta, aurtan, Kaleko Afari Solidarioak taldeak botako du txupina.

Egiako jaiak adin tarte guztientzako jarduerak izango dituzte, eta aurtan, bereziki, haurren eskaintzak hartuko du indarra: «Gazteen egunean, haurren egitaraua ere indartu dugu, auzoko hainbat eragileren laguntzari esker; tartean, ikastolarena». Horrez gain, izango da aldaketaren bat edo beste, aurrekontuaren egokitzapenak bultzatuta: «Udalak jai herrikoiei ematen dizkien laguntzak gero eta urriagoak dira eta horrek

bete-bete eragin die Porrontxo jai ere», aitortu dute dute jai batzordeko kideek.

Diru laguntzen kopuruak musikari eragin dio, batik bat. Nolanahi ere, aldaketok ez dute gaueko eskaintzaren kalitatea jaitziko eta beste behin, aniztasuna izango da nagusi: «Beti bilatzen dugu gustu guztietarako musika egotea eta Plaza Haundi eta Plaza Berriko musika desberdina izatea». Hala, rock taldeez gain, estilo anitzetako DJ-ak, erromeria eta helduagoentzako guateka eskainiko ditu aurtengo programazioak.

### Jaiak zabaltzeko beharra

Urteroko moduan, jaietan parte hartzen duten txaranga mordoak auzoko txoko guztietaraino barreiatuko du festa giroa. Aurtan, baina, musika ez ezik, auzoko hainbat eragile izango dira jai gunea hedatzearen erantzule: boxeo gau ekitaldia egingo dute Zentro Sozialistan, haurrentzako jarduerak antolatuko dituzte Gladys Enean, DJ-ak izango dituzte auzoko hainbat tabernatan eta haurrentzako gozo-el-tzea egingo dute Ametzagaña kalean.

Festak auzoko hainbat gunetara zabaltzea ez ezik, eragile askoren ekarpenak ere indartuko du jai gunean bertan ematen den eskaintza. Aurten, esaterako, Saretuz elkartearen arropa trukea egingo dute aurrenekoz Plaza Haundin, eta urtero antolatzen den jota emanaldiaren ordez, mariatxiak izango dituzte larunbat eguerdian, Doña Chepina jatetxe mexikarrak bultzatuta: «Azkenean, ongi etorria da gure jaien filosofiarekin bat datozen jarduerak antolatzeko prest dagoen edonor», adierazi du Morenok.

### Auzolana giltzarri

Komertzioak eta eragileak ez ezik, auzoan kuadrilla mordoak laguntzen du jaien antolaketan. Edonola ere, hamabost kide izan ohi dira gurdinari tiraka aritzen direnak: «Jai batzordea aurrera ateratzea kostatu egiten zen urte batzuetatik gentozen. Baina, aurten, deialdia egin dugu, eta jendeak erantzun du», adierazi du Alduntzinek. «Jende guztiak argi du zerbait egin beharko duela, eta arduraren bat edo beste izango duela jaietan parte hartzeko; ez dela dena festa izango, alegia», gaineratu du Morenok.

Aste honetan izan dute azken bilera, eta azken hari-muturrak finduta, gogoak dira nagusi jai batzordeko kideen artean: «Orain ja jendea motibatzen hasi da: karroza eta mozorroen inguruan hitz egiten eta horrela...». Egiatarrek hasi dute atzera kontaketa. ●



## ASTELEHENA 9

### 16:00 • Plaza Haundin

Apar festa eta jolasak.

### 17:00 • Plaza Haundin

Txirrista erraldoia.

### 18:00 • Plaza Berrin

Azoka txikia.

## ASTEARTEA 10

### 17:00 • Plaza Haundin

Patinete eta bizikleta festa (0-8 urte) eta aurpegi margoketa.

### 17:00 • Pilotaleku ondoan

Eko jolasak (0-3 urte), Egihaurgunearen eskutik.

### 18:00 • Plaza Haundin

Talo tailerra.

### 19:30 • Plaza Haundin

Kata poetikoa, helduentzat. Izena emateko: 656-73 85 81 Whatsapez.

## ASTEAZKENA 11

### 17:00 • Etxabe parkean

Jolasak (3-6 urte), Egihaurgunearen eskutik.

### 17:00 • Etxabe parkean

Jolasak (+6 urte), Antxeta Ttan-Ttakunen eskutik. Gero, txokolate jana.

### 17:00 • Plaza Haundin

Arropa truke txokoa Saretuzen eskutik.

### 20:00 • Plaza Haundin

Erasoen aurkako argazki herrikoa.

## OSTEGUNA 12

### 17:00 • Aldakoneako zaharren egoitzan

Oritz eta Eneko trikitilarien emanaldia.

### 17:00 • Auzoan zehar

Porrontxo, Porrontxa eta buruhandiak.

### 17:30 • Txondorra parean

Txupina eta haur jaitsiera.

*Que pelos!!*  
**GORA PORRONTXOAK!**  
*ileapaindegi mistoa*  
 Karmengo Ama, 12 - DONOSTIA Tel.: 943-32 27 76  
 www.quepelos.com quepelos@hotmail.com

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!!**  
  
**zummy**  
 • ETXETRESNA ELEKTRIKOAK  
 • TB  
 • SUKALDEKO ALTZARIAK  
 Karmengo Andre Maria, 21  
 943-27 88 28 - 943-27 50 38  
 www.zummy.com • info@zummy.com



**17:55 - Plaza Haundin**

Holi Festa, Ongi Etorri Eskolararen eskutik.

**18:00 - Plaza Haundin**

Mikeltxi DJ-aren dantzaldia.

**20:00 - Txondorra atzeko plazatik**

Pregoa, txupinazoa eta kuadrillen jaitsiera.

**22:00 - Plaza Haundin**

Jotatxo DJ-a.

**22:00 - Plaza Berriko karpan**

Karaokea.

**00:00 - Auzoan zehar**

Kuadrillen jolasak.

**OSTIRALA 13**

**08:00 - Auzoan zehar**

Diana dultzaineroekin.

**09:30**

Kalejira Porrontxo eta Porrontxarekin eta jolasak frontoi inguruan, haurren entzierroa Tejeria kalean eta karaokea Plaza Berriko karpan Aitor Ikastolaren eskutik.

**11:00 - Plaza Haundin**

Tomaxen abenturak azken festa.

**11:00 - Frontoian**

Gazte pala finalak.

**12:00 - Plaza Haundin**

Hamabitakoa.

**14:30 - Plaza Berriko karpan**

Gazte bertso bazkaria Egiako Gazte Asanbladaren eskutik.

**16:00 - Plaza Berriko karpan**

Mus txapelketaren finala eta gazte jolasak.

**16:30 - Etxabe parkean**

Buruhandiak eta ondoren Porrontxo, Porrontxa eta Egian Sound Systemekin dantzaldi ibiltaria Tabakaleraruntz.

**17:30 - Blas de Otero plazan**

Aurpegi margoketa, maskuri tailerra, jolas erraldoiak eta puzgarriak haurtxokoaren eskutik.

**18:00 - Nestor Basterretxean**

Pultsera, pegatinak eta jolasak, Gaztelekuaren eskutik.

**18:00 - Cactus tabernan**

Bote txapelketa.

**18:30 - Auzoan zehar**

Elektrotzaranga Egiako gazte asanbladaren eskutik.

**19:30 - Agreda tabernan**

Zumba, Maidarren eskutik.

**20:00 - Pilotalekuaren ondoan**

Haurren afari-merienda (txartelak Cactusen salgai asteazkena 11 arte).

**20:30 - Plaza Haundin**

Familia dantzaldia.

**21:30 - Tejeria kalean**

Zezensuzkoa.

**22:00 - Plaza Haundin**

Kontzertua: Pelax.

**22:00 - Plaza Berrin**

Kontzertuak: Arkale eta Zarrata. Ondoren, DJ-ak.



**IPURU S. L.  
ERAIKUNTZAK**

**Ondo pasa jaietan!**

Mundaiz bidea, 10, 2. solairua - 24. bulegoa  
20012 DONOSTIA - Tel.: 943-42 41 21 - www.ipuru.com



**GORA EGIA ETA  
GORA PORRONTXO JAIK!**

**CACTUS  
TABERNA**

**PLAZA BERRI · EGIA**

**943-05 41 67**

---

**23:00 · Agreda taberna parean**

Beteranoen guatekea.

---

**00:00 · Plaza Haundin**

Kontzertua: Nakar.

---

**01:00 · Taupada tabernan**

DJ gaua: Happymusic DJ-a,  
pachanga & bailoteo.

---

**01:30 · Plaza Haundin**

113 DJ-a.

---

**03:00 · Taupada tabernan**

DJ gaua: Jonfer,  
house & tribal. Itxi arte.

## LARUNBATA 14

**09:00 · Auzoan zehar**

Kzazpi txistulariak.

---

**10:30 · Frontoian**

Pala finalak Egialairen eskutik, trikitalariek.

---



# BARNE DISEINUA ALTZARIAK

Ametzagaña 7  
Egia · Donostia  
[www.apal.eus](http://www.apal.eus)  
943 320400  
[info@apal.eus](mailto:info@apal.eus)





**11:00 - Nestor Basterretxea**

Pizza tailerra Taba-Arizmendiren eskutik (+8 urteko haurrak gurasoak lagunduta joan beharko dira. Izen ematea irailak 12rako).

**12:00 - Plaza Haundin**

Flor Fernandez mariatxiak eta takoak Doña Chopina jatetxearen eskutik.

**12:00 - Gladys Enean**

Txokolate jana.

**12:00 - Auzoan zehar**

Kantujira Kata tabernan hasita.

**12:00 - Plaza Berritik**

Porrontxoetako IV. danborrada.

**12:15 - Gladys Enean**

Dantza jolasak (+5 urte), Trebeska dantza taldearen eskutik.

**12:30 - Auzoan zehar**

Dantza kale pote kuadrilla beteranoen eskutik.

**14:30 - Plaza Haundin**

Denak etxera brindisa, argazkia eta bazkari herrikoia. Txartelak Koskorrio, Kata, Cactus eta Basarri tabernetan.

**16:00 - Plaza Haundin**

Bazkalosterako, Egiatarock Festen emanaldia.

**17:00 - Auzoan zehar**

Porrontxo, Porrontxa eta buruhandiak, Kaña-2Kaña trikitilariak lagunduta.

**17:00 - Ametzagaña 49an**

Gozo-heltzea, Doña Chopina jatetxearen eskutik.

**18:00 - Auzoan zehar**

Elektrodager elektrotzaranga.

**18:00 - Zentro sozialistan**

Kirol emanaldia.

**19:00 - Plaza Berriko karpan**

*Personal Kontxi's* antzerkia.

**19:00 - Ametzagaña 66 gunean**

Remember festa, Reis, Angulo eta Martino DJ-en eskutik, Anden tabernak antolatuta.

**19:00 - Ametzagaña 49an**

Mariatxiak eta musika mexikarra, Doña Chopina jatetxearen eskutik.

**21:00 - La Tabernan**

Rockin Ricky Hillbilly Trio.



**21:00 · Tejeria kalean**

Zezensuzkoa.

**21:00 · Tejeria kalean**

Kuadrillen afaria.

**22:00 · Sanse tabernan**

Martxelo DJ-a.

**22:40 · Auzoan zehar**

Rock Kam Broom! Rock musika ibiltaria, Agreda taberna ondoan hasita.

**23:00 · Plaza Haundin**

Itzal erromeria

**23:00 · Agreda eta Ilargi tabernetan**

Mitx DJ-a.

**01:00 · Plaza Berrin**

LaMia Mari.

**01:00 · Taupada tabernan**

DJ gaua: Happymusic DJ-a, pachanga & bailoteo.

**02:00 · Plaza Haundin**

La Fulana DJ-a.

**03:00 · Taupada tabernan**

DJ gaua: Jonfer, house & tribal. Itxi arte.

**IGANDEA 15**

**07:00**

Gaupaseroen martxa! Ilargi txarangarekin.

**10:00 · Plaza Haundin**

Zumba.

**10:30 · Frontoian**

Eskupilota finalak Egialairen eskutik, trikitilariak alaituta.

**11:00 · Auzoan zehar**

Kzazpi txistulariak.

**12:00 · Plaza Haundin**

Sagardo dastaketa trikitilariak alaituta.

**14:30 · Plaza Haundin**

Bazkari herrikoa. Donosti Gain, Ur Zaleak eta Arrano elkarteek lagunduta.

**17:00 · Plaza Berriko karpan**

The Corrugators taldearen emanaldia.

**17:00 · Plaza Haundin**

Herri kirolak.

**19:00 · Plaza Haundin**

Andoni Oilokiegi.

**20:00 · Auzoan zehar**

Kilkerband txaranga.

**21:00 · Auzoan zehar**

Kalejira Porrontxo eta Porrontxarekin,

**22:00 · Auzoan zehar**

Azken traka. Ez joan etxera auzoko argazkia atera arte!

**23:00 · Cactus tabernan**

Gui ar de Guord.



Mundua guk sortzen dugu,  
ateraiozu alderik onena

ateri  
k o o p

373 | ABOKATUAK

aholkukoop

koop57 | euskal herria  
scc

Ametzagaina, 17, behea, Egia 20012 Donostia · 943005680 · ateri@aholku.eus